

# ELKARTE


INFORMAZIO  
ALDIZKARIA

# 37

ABENDUA  
2 0 1 0

*Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea*

Lana eta familia  
bateragarri egiteko neurriak  
**Lan-erreformari buruz**



*Gozoratu...*

## ARABA

Beato Tomás de Zumárraga, 96-98 behea  
Tel. eta Faxa: 945 225 516  
01009 VITORIA-GASTEIZ  
e-mail: eginez@euskalnet.net  
www.eginez.org

## GIPUZKOA

Ondarreta pasealeku 5.ean  
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379  
20018 DONOSTIA  
e-mail: elkartu@elkartu.org  
www.elkartu.org

## BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea  
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69  
48014 BILBO  
e-mail: fekoor@fekoor.com  
www.fekoor.com

# KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

## GIPUZKOA

- **AGAEB**  
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarte.
- **AGAER**  
Gaixotasun erreumatikoek erasandako Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**  
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **ANAIIDIA**  
Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetasa.
- **ASPARGUI**  
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BIZI-BIDE**  
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **Debabarreneko Gutxitu Fisikoak.**
- **LEZDI**  
Lezoko gutxituen elkarte.

## BIZKAIA

- **A.C.C.U.**  
Crohn-en eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte.
- **A.D.E.L.E.S.**  
Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte.
- **ADEMBI**  
Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte.
- **ALCER**  
Giltxurreneko gaixotasunen aurkako elkarte.
- **ASEBI**  
Asociación bizkaia elkarte espiná bífida e hidrocefalia.
- **Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko gurasoen bizkaiko elkarte.**
- **Lea-Artibaiko ahalurri fisikoen elkarte.**
- **AHEVA**  
Eusko hemofiliaren elkarte.
- **ARGIA**  
Ostomizatuen eta inkontinenteen euskal elkarte.
- **ASPANOVAS**  
Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte.
- **AUXILIA**
- **A.V.A.H.**  
Bizkaiko ataxia hereditarioen elkarte.
- **B.E.N.E.**  
Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte.
- **BIDARI**  
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko ermuko elkarte.
- **BIZKEL**  
Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak.

- **CODISFIBA**  
Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko elkarte.
- **FRATER**  
Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte.
- **L.E.V.A.R.**  
Artritis reumatoidea duten pertsonekiko elkarte.
- **EFELA**  
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko arratiko elkarte.

## ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**  
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonekiko Elkarte.

Eusko Jaurlaritzako  
Justizia, Lan eta Gizarte  
Segurantzza Sailak  
diruz, lagundutako  
argitalpena.

---

Elkarte horiekin  
harremanetan jarri nahi  
baduzu, jo ezazu zure  
probintziako  
koordinadorara

# a u r k i b i d e a

## O r o k o r r a

---

1. GIZARTE-ERATZETZEKO ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA BERRIAREN ONARPENA .....	4
2. GIZARTE-ZERBITZUEN ARLOKO GOI-IKUSKARITZA ONARTU DA.....	5
3. LANA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIAK .....	6
4. MENDEKOTASUN-EGOERAREN BALORAZIO-BAREMOA ALDATU DA .....	9
5. LAN-ERREFORMARI BURUZ .....	10
6. EHUNEKO 45EKO EZGAITASUNA EDO HORI BAINO HANDIAGO DUTEN LANGILEEN ERRETIRO-ADINA .....	11
7. LAN-UZTEAREN AURREAN LANGILE AUTONOMOAK BABESTE A .....	11

## A r a b a

---

1. GIZARTE-KONTSEILUEN I. BILTZARRA .....	12
2. TOKIKO DEFENDATZAILEEN ESTATUKO III. TOPAKETA .....	12
3. III. BERDINTASUNAREN FORU-PLANA .....	13
4. LEGUTIANO .....	14
5. GARAPEN IRAUNKORRERAKO PLAN ESTRATEGIKOA.....	14
6. HEDABIDEAK.....	15
7. ETXEBIZITZA LIBRE EGOKITUA.....	15
8. LABURRAK: GIZARTE-ZERBITZUETARAKO LURRALDE-KONTSEILUA; ZIRKULAZIO-ZERGA; "DIBERTSITATE-FUNTZIONALA DUTEN EMAKUMEAK" KONGRESU ARRAKASTATSUA .....	16

## B i z k a i a

---

1. SESTAOKO MIGUEL SERVET KALEAN ESKAILERA MEKANIKOAK JARTZEKO OBRAK GELDITU DITU EPAITEGIAK.....	18
2. BILBOKO UDALAK, BERE BERDINTASUN SAILAREN ESKUTIK, ETA FEKOOREK GUTXITASUN FISIKOA DUTEN EMAKUMEEN AURKAKO GENERO-INDARKERIAREN ARAZOAN ARRETA HOBETZEKO AKORDIOA ZINPETU DUTE.....	19
3. 100ETIK GORA DIRA FEKOOREN "ZAINDUZ" PROGRAMAK TREBATZEN DITUEN PROFESIONALAK EZ DIREN ZAINTZAILEAK .....	21
4. DUTXITASUNA DUTEN 36 PERTSONEK ITSAS BIDADIAZ GOZATZEKO AUKERA IZAN DUTE FEKOOR 2010 OPORRAK PROGRAMARI ESKER .....	22
5. FEKOOREK BIZIKLETA EGOKITUEN IRTEERAK ANTOLATU DITU, KIROLA SUSTATZEKO GUTXITASUNA DUTEN EMAKUMEEN ARTEAN .....	23
6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDAL GEHIAGOK BAT EGIN DUTE FEKOOREK IRISGARRITASUNARI BURUZ PROPOSATUTAKO ORDENANTZAREKIN .....	24
7. BERTAN BEHERA GELDITU DA NAZIOARTEKO MARATOI-ERDI EGOKITUA LAGUNTZEN FALTAGATIK. BILBOKO SEMI-MARATHON INTERNATIONAL ADAPTÉ .....	25

## G i p u z k o a

---

1. DONOSTIA, EUROPAKO HIRI IRISGARRIA SARIA LORTZEKO HAUTAGAI.....	26
2. GIPUZKOAKO GIZARTE-ZERBITZUEN SISTEMA BERRIAREN AURKEZPENA.....	26
3. TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGA ESKUBIDEAK MURRIZTEN DITUEN ALDAKETA.....	27
4. AHALMEN-URRITASUNAREN TXARTELA .....	28
5. 25 URTE EKINEZ (LOKALAREN URTEURRENA).....	29
6. ELKARTUK ERAKUNDEETAN PARTE HARTZEN DU .....	31
7. AHALMEN-URRITASUN FISIKOA ETA SENTSORIALA DUTEN PERTSONENTZAKO OPORRALDI-PROGRAMA.....	32

## GIZARTERATZEKO ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA BERRIAREN ONARPENA

Legaren helburu nagusia sistema sendo bat egituratzea da, krisi-egoeretan sendotasuna bermatzeko, azken urteotan ikusi den premien bilakaerara ondo egokitutako sistema bat.

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak bi funtsezko osagai ditu: prestazio ekonomikoak eta gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnak.

Zalantzarik gabe, tresna ekonomikoaren funtsezko pieza da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta, prestazioko modalitate oinarritzkoenaz gain, bigarren formula bat bideratzen du laneko diru-sarrerak dituztenentzat, diru-sarreraren maila baxua osatzera bideratutako laguntza bezala.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta onartzen da honako helburu hauekin:

**Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarritzko errenta.** Laneko errentetatik inolako diru-sarrerarik ez daukaten eta ezarritako baremoaren arabera hileroko gutxieneko diru-sarrera jasotzen ez duten pertsonen zuzendua.

**Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errenta.** Laneko diru-sarrerak eduki arren, hileroko jasotzen dutena bizikidetzak unitateko kideen kopuruaren arabera dagokien Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarritzko Errentaren zenbatekora iristen ez diren pertsonen zuzendua. Diru-sarreraren maila baxua osatzera bideratutako laguntza horren hartzaileak izango dira

premia soilik ekonomikoak dituzten eta, beraz, gizarteratzeko laguntza espezializaturik behar ez duten baina lan-egoera hobetzera bideratutako laguntzak behar dituzten pertsonak



Alderdi garrantzitsuenen artean dago Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak Gizarteratze-hitzarmenarekin duen lotura. Titularrak eta Oinarritzko Gizarte-zerbitzuak adostu eta definituko dituzte hitzarmen horren edukiak. Baldintza hori ezarriko da, dekretuan bildutako terminoetan, hori betebeharrak ez denean salbu

Bertan, lotura hori kasuaren arabera da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren bi modalitateak kontuan izanik:

- Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarritzko Errenta lotuta dago gizarteratze-hitzarmenak ezartzearekin; eta hitzarmen horren edukiak (titularrak eta oinarritzko gizarte-zerbitzuak adostu eta definituko dituztenak) hala haien nola bizikidetzak unitateko gainerako kideen gizarteratzea eta/edo

laneratzea erraztera orientatuko dira. Gizarteratze-hitzarmena sinatzetik salbuetsita geratuko dira bizikidetza-unitateko titularra pentsioduna denean, salbu titularrak berak edo haren bizikidetza-unitateko gainerako kideren batek lan egiteko adina duenean, eta lanerako ezintasun iraunkor absolutuan ez dagoenean.

- Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errentarako gizarteratze-hitzarmen bat ezarri beharko da, lan-egoera hobetzera bideratuta.

Funtsezkotzat jotzen da gizarte-zerbitzuen koordinazioa arautzea ere, batez ere Udalaren Gizarte-zerbitzuen eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean. Azken horrek honako kasu hauetan esku hartuko du:

- Emandako prestazio-modalitatea Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errenta denean.
- Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errenta izanik, titularra edo haren bizikidetza-unitateko kideren bat lan egiteko adinean daudenean, salbu eta lanerako ezgaitasun iraunkor absolutua dutenean edo araututako ikasketa akademikoak egiten ari direnean.

- Aurre-akordioan edo Gizarteratze Hitzarmenean oinarrizko gizarte-zerbitzuak adierazten duenean beharrezkoa dela Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak esku hartzea.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzea bateragarria izango da etxebizitzako gastuak osatzeko prestazioa jasotzearekin eta, baldintzak betetzen badira, baita Gizarte-larrialdietarako Laguntzekin ere.

Bizikidetza-unitatearen definizioan nabarmendu beharra dago kotizaziopeko edo kotizaziorik gabeko zahartzaroko, baliaezintasuneko edo alarguntzako pentsioen onuradunek osatutako bizikidetza-unitatea, bikotekidearekin edo senar-emazteen pareko harreman jarraitua dutenekin batera, eta ekonomikoki haien mendekoak direnekin batera. Kategoria berean daude bakarrik dauden edo ezkontzarena bezalako beste harreman batekin elkartuta dauden pertsonak, beren kargura dituztenean %45etik gorako ezgaitasun-kalifikazioa duten edota II. graduako 1. mailako mendetasuna edo handiagoa duten adingabeak edo pertsona helduak.

## GIZARTE-ZERBITZUEN ARLOKO GOI-IKUSKARITZA ONARTU DA

Gizarte Zerbitzuen Legean jasota dagoen organo sortu berria da Goi Ikuskaritza, eta EAEko gizarte-zerbitzuen prestazioaren kalitatea hobetzeko aukera emango du, hala nola zerbitzu publikoetan, itunpeko zerbitzuetan, kontratatuetan eta hitzarmenezko zerbitzuetan.

Goi Ikuskaritzaren eginkizuna Euskadiko gizarte-zerbitzuei buruzko ana-

lisiak, ikerketak eta azterlanak egitea izango da, modu zuzen eta orekatuan funtzionatzen dutela egiaztatzeko, indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatuz.

Argibide gehiago: 238/2010 Dekretua, irailaren 14koa, Gizarte-zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzari buruzkoa (EHAA, 2010eko irailak 30).

# LANA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIAK

Familia eta lana bateragarri egiteak esan nahi du denbora orekatua egon behar dela familiaren eta lanaren arloko betebeharrak garatzeko garaian.

Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak arautzen dituen dekretu honetan, diru-laguntza zuzenak onartu ziren familia eta lana bateragarri egiteagatik diru-sarreretan murrizketak izaten dituztenentzat, ekainaren 29ko 118/2007 Dekretuaren arabera (EHAA, 2010eko uztailaren 7koa).

Dekretu horretan, laguntzak lau ardatzetan egituratu dira; hona hemen laguntza horiek:

- Seme-alabak zaintzeko lanaldia murriztu edo eszedentzia hartu duten langileentzako laguntzak.
- **Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitar-tekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak.**
- Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitar-tekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordeztzeko laguntzak.
- Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatik laguntzak.

Ezabatu egin da aurreko legean finkatutako gizonen aldeko diskriminazio positiboa (laguntzaren zenbatekoa handiagoa zen gizonentzat emakumeentzat baino), neurria onartezina eta diskriminazio peto-petoa izatera irits baitaiteke guraso bakarreko familien kasuan edo bi gurasoak emakumeak direnean.

Lehenengo laguntza-ildoan –seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu

eta lanaldia murriztea– bada beste berrikuntza bat: neurri hori soilik eskolako oporraldietan baliatzeko aukera. Laguntza baliatzeko epe-muga luzatu egin da, adingabeak zortzi urte bete arte.

Horretaz gain, mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitar-tekoak zaintzeko eszedentzia hartzea edo lanaldia murriztea ere aurreikusten da. Beraz, diruz lagunduko dira osasun-egoera larrian dauden senitar-tekoak –ezkontideen eta seme-alaben gaixotasun terminalak edo istripu ezgaitzaileak– zaintzeko eszedentziak eta lanaldi-murrizketak ere; mendetasun-egoera erreal horiek orain arte laguntzetatik kanpo geratzen ziren, kasu askotan, une jakin batzuetan gertatzen zirelako eta/edo mendetasunaren balioespena ez zelako izapidetzen.

Eusko Jaurlaritzak, lana eta familia bateragarri egiteko politikaren esparruan, garatuko duen politika berrian ezarriko diren 4 ardatzak honako modu honetan laburbiltzen dira:

**Lehenengo laguntza-ildoak: “Seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia hartu edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzak”.**





Diruz laguntzeko moduko jardunak:

- a) Hiru urtetik beherako seme edo alaba bakoitza zaintzeko eszedentzia.
- b) Zortzi urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldia gutxienez heren bat murriztea. Salbuespen gisa, semeak edo alabak %33ko edo gehiagoko ezgaitasuna badu onartua, lanaldia murrizteagatik diru-laguntza baliatu ahal izango da semeak edo alabak 18 urte bete arte.

**Bigarren laguntza-ildoak: "Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak".**



Bi egoera hauetako batean dauden langileei emango zaie diru-laguntza:

- a) Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzea.
- b) Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko lanaldia murriztea, gutxienez, heren bat.

Dekretuaren 18. artikuluan argitzen dira mendetasun-egoeran dagoen senitartekoak bete beharreko baldintzak, horrela:

1. Senitartekoak –betiere senitarteko hori zaintzeko hartu bada eszedentzia edo murriztu bada lanaldia– mendetasuna onartua izan behar du, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera.
2. Laguntzaren onuradunaren eta mendetasun-egoeran dagoen senitartekoaren artean –betiere senitarteko hori zaintzeko hartu bada eszedentzia edo murriztu bada lanaldia– odolkidetasunezko edo kidetasunezko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna egongo da nahitaez, edo eskatzailearen ezkontidea edo izatezko bikotekidea izango da.
3. Mendetasun-egoeran dagoenak ez du egoitza-zentro batean sartuta egon behar, modu iraunkorrean.

Gainera, eszedentziagatik laguntzen kasuan, mendetasun-egoeran dagoen senitartekoak ezin du erabili gizarte-zerbitzuetako eguneko zentrorik.

Osasun-egoera oso larrian dagoen senitartekoak bete beharreko baldintzak:

1. Senitartekoak –betiere senitarteko hori zaintzeko hartu bada eszedentzia edo murriztu bada lanaldia– osasun-egoera oso larrian egon behar du; hau da, autonomia fisiko, psikiko edo intelektuala galdu duelako, laguntza handia behar du eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak (eta, bereziki, zainketa pertsonalari dagozkionak) egiteko.
2. Senitartekoak –betiere senitarteko hori zaintzeko hartu bada eszedentzia edo murriztu bada lanaldia– eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duen langilearen semea, alaba, ezkontidea edo izatezko bikotekidea izan behar du.
3. Osasun-egoera oso larrian dagoen senitartekoak ez du mendetasun-egoera onartua izan behar, Autonomia pertsonala sustatzeari

eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoaren arabera.

Honako hauek izango dira laguntza horien onuradun:

- a) Besteren kontura lan egiten duten langileak.
- b) Kooperatiba-sozietateetako bazkide-langileak edo lan-bazkideak.

**Hirugarren laguntza-ildoak: "Seme-alabak, edo mendetasun egoeran edo osasun egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordeztzeko laguntzak".**



Langabe moduan erregistratuta dauden pertsonak kontratatzeko diru-laguntzak emango dira, betiere seme-alabak eta mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten eta besteren kontura lan egiten duten langileak, edo kooperatiba-

sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordeztzeko kontratatzen badira.

Era berean, eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duen langilearen lanpostua betetzeko lehendik denbora partzialeko kontratua zuen langilearen lanaldia luzatzen bada, horretarako ere diru-laguntza emango da.

**Laugarren laguntza-ildoak: "Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatikoko laguntzak".**



Hiru urtetik beherako seme-alabak bizilekuan zaintzeko pertsonak kontratatzeko diru-laguntza emango da.

Artikulu honek ekainaren 29ko 177/2010 Dekretu berriari buruzko (EHAA, 2010eko ekainaren 29koa) laburpena biltzen du. Laburpen horretan azpimarratzen da ezgaitasuna duten pertsonak edota haiekin bizi diren kideek zer laguntza mota jaso dezaketen. Dena den, honako aukera hauek dituzu onuradunek bete beharreko baldintzak eta eskubide hori baliatu ahal izateko denbora-mugak edota laguntza kopuruak zein diren jakiteko eta argibide gehiagorako: aipatu dugun dekretua irakurri, Eusko Jaurlaritzako Bulegoetan aurrez aurre galdetu, edo kontsultatu:

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net> helbidean.



# MENDEKOTASUN-EGOERAREN BALORAZIO-BAREMOA ALDATU DA

Abian jarri da **Autonomia eta Ezinduentzako Laguntzarako Sistemaren Lurralde Kontseiluak** lehendik indarrean zegoen mendekotasun-egoeraren balorazio-baremoa aldatzeko akordioa, uztailaren 12ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoari jarraituz.

Erabaki berriaren arabera, honako hauek dira aldaketa horien oinarritzko asmoak:

- Erraztasuna ematea Munduko Osasun Erakundeak (MOE) Funtzionamenduaren, Ezgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenera (FNS) jaso zituen eduki eta erabilera nagusiak ulertzeko, osasunaren eta ingurumenaren informean adierazten den balorazioari koherentzia emateko premia azpimarratuz.
- Honako bi egoera hauek bereiztea: "Hartutako betebeharra ez betetzea" mendekotasun-egoera dela-eta edo puntuagarriak ez diren bestelako arazoengatik.
- Mendekotasun-maila zehaztea, beste pertsona baten edo batzuen laguntza-beharraren arabera.
- Beste pertsona baten edo batzuen laguntza-moduen definizioa zehaztea, mendekotasun-egoeren larritasuna kontuan hartuta egiten den sailkapena hobetzeko. Mendekotasun-egoera onartutako graduen eta mailen arabera zehazten da (26. art.).
- Laguntza onartzeko balorazioak egin bitartean, eragozpenak sortu dituzten zeregin konplexuak erraztea.
- Hiru urte baino gutxiagoko adingabeen Balorazio Eskala Nagusiak hobetzea.



# LAN-ERREFORMA RI BURUZ

Ziklo ekonomikoen eragina eta langabezia kopurua murrizteko asmoarekin, irailean onartu zen Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriak jasotzen dituen 35/2010 Legea. Irailaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren neurri horiek:

Legeak honako hutsune hauek azpimarratzen ditu orain arte indarrean zeogen lan-harremanetarako modeloon:

- Aldi baterako kontratuarekin ari diren langileen garrantzia (besteren konturako soldatapekoen herena gutxi gorabehera).
- Enpresetako barne-malgutasuna handitzeko aukera eskasa.
- Enpleguko zerbitzu publikoen eraginkortasunik eza.
- Diskriminazioa lan-merkatuan, bereziki emakumea, ezgaitasuna duen pertsona edota adineko langabetua izateagatik.

Onartu berri den Legeak honako helburu nagusi hauek bete nahi ditu:

## **Lehena:**

lan-merkatuko dualtasuna murriztea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sustatu eta garapen orekatuagoa eta iraunkorragoa eratzeko.

## **Bigarrena:**

baliabideak indartzea, bereziki lan-harremanetarako barne-malgutasunari dagozkionak eta, batez ere, lanaldia aldi baterako murrizteari buruzkoak; horrela, enpleguari eutsi nahi zaio krisi ekonomikoko garaietan, kontratua amaitzeko prozedurak murriztuz eta, enpresen moldagarritasunari begira, aldi baterako kontratazioak baino modu osangarriagoak eskainiz.

## **Hirugarrena:**

pertsona langabetuen aukerak areagotzea, bereziki gazteen aldekoak; horretarako, lan mugagabearen sustapenerako lan-kontratuak saritze-ko politika aldatuko da, hobetzeko

asmoz, prestakuntzako kontratuak askoz baliagarri eta erakargarriago egingo dira enpresa zein langileen-tzat, eta lan-bitartekaritzako mekanismoak hobetuko dira.

Ezgaitasuna duten pertsonentzat, indarrean jarraituko dute honako hauek:

- Gizarte Segurantzak ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko eskaintzen dituen hobariak.
- Ezgaitasuna, laneko diskriminazioaren aurkako klausula batean jasotzen diren arrazoien artean.
- Enplegu-bulegoan langabetu gisa izena emanda dauden ezgaitasunen bat duten pertsonak kontratu mugagabea sustatzeko lan-kontratu bidez kontratatu ahalko den langile-talde bezala jarraituko dute.
- Zigorra ezarri ahal izango da, lanean sartzeko hautaketa-prozesuetan, besteak beste, ezgaitasuna duten pertsonen aurkako diskriminazio-neurri bihur daitezkeen datu pertsonalak eskatzen baldin badira.



## **EHUNEKO 45EKO EZGAITASUNA EDO HORI BAINO HANDIAGO DUTEN LANGILEEN ERRETIRO-ADINA**

Ehuneko 45eko ezgaitasuna edo hori baino handiago duten langileen erretiro-adina berrogeita hemezortzi urtekoa izango da, abenduaren 22ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoari jarraiki (1851/2009 ED, abenduaren 4koa).

Lege berriaren arabera, ehuneko 45eko ezgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen erretiro-adina berrogeita hemezortzi urtekoa izango da; langile horiek besteen kontura eta/edo norberaren kontura lan egin eta hori frogatzen duten Gizarte Segurantzaren sistemako erregimen batekoak izan daitezke.

Onuraduna izateko baldintzak ondorengoak dira: lan-bizitzan zehar,

gutxienez, erretiro-pentsioa jaso ahal izateko beharrezkoa den kotizatzeoko gutxieneko epean lan egin izana, eta Errege Dekretuko 2. artikuluan adierazitako ezintasunen bat eduki eta ehuneko 45eko ezintasuna edo handiagoa izatea.

Errege Dekretu horrek ezarritako hobekuntzak nabarmenak dira, 2003an (abenduaren 5eko 1539/2003 ED) argitaratu zenarekin alderatuta. Izan ere, abenduaren 5eko 1539/2003 Errege Dekretuak erretiro-adina murrizteko koefizienteak ezartzen zituen %65eko ezgaitasun-maila egiaztatzen zuten langileentzat.

## **LAN-UZTEAREN AURREAN LANGILE AUTONOMOAK BABESTEA**

Abuztuaren 6ko 32/2010 Legeak ezarritzen du Lanari Uztearen aurrean Langile Autonomoen Babesa zein den.

Onuradunak 60 urte bete ondoren jasotzen duen laguntza hobetu egin da, langile autonomoak erretiratzeko eskubidea edukitzeko baldintzak betetzen dituen arte.

Horretaz gain, honako laguntza hauek ere emango dira:

- a) Lana erabat edo behin-behineko edo behin betiko izaeraz uzteagatik laguntza.
- b) Langile autonomoari dagokion Gizarte Segurantzaren kotizazio-tasa ordaintzea, gertakari arruntengatik.

Lan-uzteagatik emango den babesa, helburu hauekin emango da: lanerako orientazio- eta formazio-programak proposatzeko eta langile autonomo

onuradunak abian jarri nahi duen ekimena sustatzeko.

Langile autonomoek lanari uzteko arrazoiak ekonomikoak, teknikoak edo antolamenduzkoak izan daitezke. Bezeroak kontratua justifikatutako edo justifikatu gabeko arrazoiengatik hausteagatik ere izan daiteke.

Prestazio ekonomikoaren iraupena lanari uztearen ondoriozko egoera legala baino berrogeita zortzi hilabete lehenago kotizatutakoaren arabera izango da. Hori jakinda, hamabi hilabetek, gutxienez, jarraian egindakoak eta lan-uzteari dagokion egoera baino lehenagokoak izan behar dute.

Legearen berrikuntzen azpimarragarrinen artean aipatuko dugu babes gehigarria aplikatuko zaiela lehen nabarmendu ditugun arrazoiengatik jardunbidea uztera behartuta dauden langile autonomoei.

## GIZARTE-KONTSEILUEN I. BILTZARRA

Urriaren 21ean eta 22an, **eginaren eginez** elkarteak Gizarte Kontseiluen I. Biltzarrean parte hartu zuen hiriko GIZARTE-KONTSEILUaren lehendakariak gonbidatuta, Gizarte Kontseilu horretako Irisgarritasuna Sustatzeko Udal Kontseiluaren ordezkari-talde gisa —hori dela eta, sail hori du—.

Irisgarritasunaren arloan, aukera izan genuen irisgarria ez den eraikin egokitu batek bermatzen dituen gutxieneko baldintzak egiaztatzeko. Horrela, Aiotz plazan zeuden udaltzainek lagundu ziguten sarrerako atea irekitzen, gure aulkia ez baitzen atetik pasatzen. Udaltzainek lagunduta joan ginen igogailuan gora, aniztasun funtzionala duten pertsonak ezin baitute bakarrik sartu igogailuan, igogailuaren irteerak orri bikoitzeko atekin ixten den eremu batera ematen duelako, eta beste pertsona baten laguntza izan ezean inork ez daki hor zaudela, eta hortik irtetea ezinezkoa da.

Jarraian, aretoan sartu ginen bertako ate batetik, hain zuzen sar gintezkeen ate bakarretik, beste ate guztiak iragangaitzak baitziren. Ate horrek arrapala erabilgarria zuen, baina malda handia igo behar genuen eta nahitaez laguntza eskatu behar da sartzeko eta irteteko. Eraikin barruan mugitzeko etengabe laguntza eskatu behar badugu, eraikin horrek mendeko erabiltzaile bihurtzen gaitu eta ez ditu betetzen irisgarritasun unibertsalaren eta diskriminazio ezaren irizpideak.

Ekitaldian zehar, oholtzara igo ziren alkateak, zinegotziak eta Espainiako estatuko Gizarte Kontseiluen kideak eta parte hartzeko antzeko bideak aurkeztu zituzten; hain zuzen, erkidego askotan gauzatu diren ereduak. Halaber, Europako Batzordeak Espainian duen Ordezkaritzaren zuzendariak azalpen bat eman zuen eta Europako partaidetzari buruzko zenbait argibide eman zituen, elkarre-bizitzan erabiltzea espero ditugunak.

## TOKIKO DEFENDATZAILEEN ESTATUKO III. TOPAKETA

**Eginaren eginezek aniztasun funtzionala duten pertsonen bizi-kalitatearen eta irisgarritasunaren inguruko hitzaldia eman zuen.**

Urriaren 6an, 7an eta 8an, EUROPA Kongresu Jauregian, Tokiko Defendatzaileen Estatuko III. Topaketa egin zen eta Javier Otaola, Vitoria-Gasteizko sindikoa, izan zuen anfitrioi.

Defentsa Erakunde horrek gonbidatuta, **eginaren eginezek** hitzaldia eman zuen aniztasun funtzionala duten pertsonen bizi-kalitatearen eta helburu hori lortzeko diseinu unibertsalaren garrantziaren inguruan.

Topaketa horretan Rebeca Andiak, **eginaren eginezen** bozeramaleak, autonomia pertsonalaren kontzeptua azaldu zuen, eta adierazi zuen hainbat eskubideren babesean dagoela; hau da, bizimodu autonomoaren, hautaketa eta autodeterminazioaren, partaidetza eta erantzukizunaren, eta solidaritatearen eskubideek babesten dute autonomia pertsonala.

Ezgaitasunaren kontzeptua aztertu zen eta aniztasuna, gizarteratzea eta berdintasuna lortzeko diseinuztat hartu zen DESIGN FOR ALL ereduak —pertsona guztiontzako diseinua—.



Irisgarritasun unibertsala da helburua; hots, guztiok dena erabiltzeko gai izatea, eta guztiontzako diseinua da helburu hori lortzeko bidea.

Topaketan, gai horren inguruan ondorioztatu zen defendatzaileen bete-

beharra izan behar dela guztiontzako diseinuaren alde egingo duen pentsaera-aldaketa eta inguruko gabezien salaketa sustatzea. Defendatzaileek, beren eskumenen esparruan, aldaketa katalizatu behar dute; hau da, herri eta hiri irisgarriagoak lortzeko bidea hastera edo jarraitzea ahalbideratuko duen aldaketa.

Topaketan beste hainbat gai aztertu ziren; hala nola, bitarteko elektronikoz datuak eskuratzea, herritarren parte-hartzea gizarte-sareetan, mugikortasuna eta garraioa, zarata kudeatzea, gizarteratzea, tratu-berdintasuna, eta zerbitzu publikoetan aniztasuna kudeatzea.

## III. BERDINTASUNAREN FORU-PLANA

Arabako Foru Aldundiak III. Berdintasunaren Foru Plana aurkeztu zuen, urriaren 14an, Artium museoan antolatutako ekitaldian. Diputatu nagusia buru izan zuen ekitaldi horretan izan ziren Arabako gizartearen hainbat ordezkari, adin eta mota guztietakoak; ordezkari horien artean ziren **egina-  
ren** eginez elkarteko emakumeak ere.

Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru-diputatuak, Covadonga Solagurennek, azpimarratu zuen "ekimenak gaur egungo aldea murriztea duela helburu, generoaren zeharkakotasuna eta ikuspuntua oinarri hartuta, errealitatea aztertzeko".

Ekitaldian bertaratutakoek bideo bat ikusi zuten. Bideo horretan Arabako gizartearen ordezkari diren zenbait pertsona azaldu ziren eta esaldi bat idatzi eta irakurri zuten. Pertsona horien artean agertu zen Blanca gure lankidea eta honako esaldi hau idatzi eta irakurri zuen:

*"Igo eta jaitsi, sartu eta irten... erraza dirudi. Gainditu gabe dugun ikasgaia da gure gizartearen oraindik ikusezinak diren oztopoak argitzea. Emakumezko nahiz gizonezko guzti-guztiok lortzen ez badugu... ez du merezi".*

Bideoa bukatu ondoren, esaldiak idatziz jasotzen zituen panela desestali zuten eta sinatzaileak oholtzara igotzera gonbidatu zituzten. Oholtzara igotzea ez zen batere erraza eta, hori dela eta, Blanca gure lankideak ezin izan zuen igo.



Hala ere, komunikabideek honako argazkia hau argitaratu zuten:



Adibide garbia da, horrek erakusten baitigu ez dela errealitatea ikustarazten, eta, gainera, irisgarritasun ezak eta jokaeran berdintasun ezak pertsonak baztertzen dituela, aniztasun funtzionalaren arabera. Argazki horretan ez dira "sinatzaile" guztiak azaltzen, tokiko komunikabideek argazki-oinean adierazten zuten moduan. Norbait argazkitik at geratu zen,

aniztasun funtzionala duten emakumeen ordezkaria, hain zuzen.

Egoera hori beste hainbat esparrutara estrapola daiteke (hala nola, enplegua, astialdia, aisia, turismoa, kultura, harremanak), eta pertsona horiek dituzten oztopoak adierazten ditu, adibide gisa, berdintasun-baldintzetan bitzta normalizatua egiteko.

## LEGUTIANO

Urriaren 19an bilera izan genuen Legutianoko alkatearekin, Pedro Julian Berriozabal jaunarekin, eta bertan izan ziren Udaleko arkitektoa eta aparejadorea ere. Irisgarritasunaren arloan emandako aurrerapausoen eta egungo irisgarritasun-planen gainean jakin nahi genuen.

Jakinarazi ziguten irisgarritasun-plan bat badagoela, 2004. urtekoa, eta zenbait ekintza zehatz ere egin direla. Horren inguruan hainbat gai aipatu ziren; hala nola, ikastola, kultura-etxean jarritako igogailua, hainbat urbanizaziotan jarritako barandak, Urbinako kontzeju-etxea, besteak beste.

Ikusarazi genien beharrezkoa dela egingo diren berritze-lan eta proiektu orotan irisgarritasuna kontuan



hartzea. Horrela, bilera izan genuen udaletxeak sartzeko arrapala du erai-kinaren arkupeetan, baina, barrualdean, Bake Epaitegiak eta Osoko Bilkuren aretoak, adibidez, ez dituzte betetzen irisgarritasun-baldintzak.

Halaber, Legutianoko herriguneak hartzen dituen zenbait eremu ikuskatu genituen, oinezkoentzat egokitzen diren egiaztatzeko. Agerian utzi genuen aparkaleku-erreserbak bermatu behar direla oinezkoen gune horietan, mugikortasun urria egiaztatu duten herriko bizilagunentzat.

## GARAPEN IRAUNKORRERAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Elkartea eta Arabako Foru Aldundia elkarlanean aritu dira EGIAZTATZETALDEAN, Arabaren garapenerako iraunkortasun-irizpideak finkatzeko.

Horrela, beste zenbait gizarte- eta kultura-talderekin nahiz toki-administrazioetako arduradunekin hitz egin dugu Aldundiak berritutako gela Zurian izandako lan-bileretan.

**Eginaren eginez** elkartearen ustetan, iraunkortasunerako bidean, lurraldea

garatu behar dugu aniztasun funtzionala duten pertsonen autonomia osoz eguneroko bizitza egin dezaten, eta, horretarako, ondasunak eta baliabideak eskaini behar zaizkie herriei eta hiriei, baina pertsona orok berdintasun-baldintzetan baliabide horiek erabiliko dituztela bermatu behar da, eta ekologia-, ingurumen- eta ekonomia-irizpideak, besteak beste, bermatu behar dira, irizpide horiek beharrezkoak baitira probintzia iraunkorra izan dadin.



# HEDABIDEAK

Eginaren eginez elkartearen laguntzarekin herriko festen koadernotxo berezi bat egin zen Vitoria-Gasteizko tokiko hedabide batean. Bertan, gure lankidea azaldu zen sozietate zibileko beste hainbat ordezkariarekin batera. Ekimen horrek eguneroko bizitzan egiten ditugun ekintzak normalizatzea eta pertsona ezberdinez osatutako gizartea bermatzea du helburu.



Nork sakatuko du Salburuako semaforo horren botoia?



Halaber, **Euskadi Directon** parte hartu da eraiki berri diren auzoek irisgarritasun-baldintzak ez dituztela betetzen salatzeko.

# ETXEBIZITZA LIBRE EGOKITUA

Zadure S.A. enpresa etxebizitzan sustapen-enpresa bat da eta Gasteizen du egoitza. Horrela, Zadure S.A. gure elkartearekin harremanetan jarri da, egun Salburuako 12. sektorean 63 etxebizitza libre sustatzen ari direla jakinarazteko. Haietatik bi etxebizitzaren ezaugarriak egokituak daude dibertsitate-funtzionala duten erabiltzaileen beharrezanezi, eta irisgarritasuna bermatzeko indarrean dagoen araudia betetzen dute.

Etxebizitzak bi dira, gehienez ere 89,35 m erabilgarri etxebizitza bakoitzeko. Bi etxebizitzek terraza, esekitokia, atondoa, sukaldea, egongela, bi gela handi eta bainugela bat (duta-platera eta bainuontziarekin) dituzte, eta etxebizitza bakoitzak trastelekua eta garaje-plaza handi bat du. Eraikitzen ari dira momentu honetan, baina datorren urteko abendurako amaituta egongo direla aurreikusten da.

Salneurria, etxebizitzaren noranzkoaren arabera, 243.000,00 eta 255.000,00 eurokoa da, hurrenez hurren (+BEZ).

Etxebizitza egokituei buruzko informazio gehiagorako, honako helbide honetara jo dezakezu zuzenean:

**ZADURE S.A.**  
**Salvador Aspiazu pasealekua, 1**  
**beheko solairua**  
**Gasteiz. Tf.: 945 220 450**



## LABURRAK

### Abian da Arabako Gizarte-Zerbitzuetarako Lurralde-Kontseilua

Gizarte-politikaren eta Gizarte-zerbitzuen Foru Sailak martxan jarri du Arabako Gizarte-zerbitzuetarako Lurralde-kontseilua. Herritarrek parte hartzeko erakunde berri hori osatuko dute gizarte-taldeen eta lanbide-, enpresa- eta sindikatu-erakundeen hogeit bat ordezkari eta Foru Aldundiko eta Lurraldeko udaletako teknikariek.

Arabako Gizarte-zerbitzuetarako Lurralde-kontseilu berriak, lehenengo bileran, Gizarte-zerbitzuaren iraunkortasunari buruzko hiru gai nagusi hauen inguruan ideiak biltzeko asmoa azaldu du: gastuaren arrazionalizazioa, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lan-kidetzeta eta gizarte-berrikuntzaren aldeko apustua.

**Eginaren Egin**ez elkarteak ordezkatzeko Kontseilu honetan ahalmen-urritasun fisikoa duten pertsonen Arabako kolektiboak. Hortaz, gure benetako nahia da elkarren artean, irisgarritasuna hobetzearan aldeko neurri horien barruan, gizarte-arretarako baliabideak aldarrikatzea, edonolako dibertsitate-funtzionala duten pertsonak burujabetasun osoz bizi daitezela bermatzeko.

### Zirkulazio-Zerga

Urriaren 1ean, **eginaren egin**ez elkar-  
tea Arabako Biltzar Nagusietako Ogasun Kontseiluaren aurrean agertu zen

Arabako Foru Aldundiak aurtengo urtarrilaren 1etik aurrera ezarritako irizpide berriek 3.000tik gora arabarrei eragin dizkieten kalteak adierazteko beste behin: %65etik gorako ahalmen-urritasun fisikoa izatea, edota %33-65 bitartekoa baina mugikortasun-baremoa gutxienez 7 puntukoa daukana, eta ibilgailuek 14 zergazaldi baino gehiago ez izatea.

Lehenengo irizpideak berriz indarrean jartzeko eskatu dugu, hau da, ahalmen-urritasuna duen pertsona izan (ahalmen-urritasun maila %33koa edo hortik gorakoa izan beharko da) eta ibilgailuaren jabe ahalmen-urritasuna duen pertsona bera izatea.

### Dibertsitate-Funtzionala duten emakumeak: diskriminazio bikoitza kongresu arrakastatsua

Azaroaren 9an eta 10ean antolatu zen Dibertsitate Funtzionala duten Emakumeak: Diskriminazio Bikoitza Kongresua. Guztira 71 pertsona bildu zituen Kongresuak. Dibertsitate funtzionala eta genero gaietan adituak aritu ziren Montehermoso jauregi paregabean, eta honako gai hauek aztertu zituzten: burujabetasuna eguneroko bizitzan, zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeak, abortua, laguntza teknikoak eta alderdi bioetikoak, besteak beste.

Jardunaldiei buruzko bibliografia eta dokumentazioa izango dituzu [www.eginenz.org](http://www.eginenz.org) webgunean.

# Ama edo profesionala?



## Eta zergatik ez biak?

Lana eta familia bateragarri egiteko  
**LAGUNTZA BERRIAK ETA HOBEAK**

**Orain informatu eta izapidetu on line**  
[www.euskadi.net/familia](http://www.euskadi.net/familia) webgunean edota 012 telefono

## SESTAOKO MIGUEL SERVET KALEAN ESKAILERA MEKANIKOAK JARTZEKO OBRAK GELDITU DITU EPAITEGIAK

18

Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako 4. zenbakiko epaitegiak Miguel Servet kalean eskailera mekanikoak jartzeko obrak aldi baterako eteteko agindua eman du. Hori da Gutxitasun fisikoa edota organikoa duten pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak (FEKOOR) maiatzean aurkeztu zuen errekurtsok jaso duen erantzuna. Errekurtso horretan, proiektua Irigarritasunaren Sustapenerako Legearen aurkakoa dela ziurtatzen zen, ez baitu hiritar guztien irigarritasuna bermatzen.

Sestaoko bizilagunei eragozpen gehiago ez jartzearen, FEKOORek eskaileraren azken zatia jartzeko obrak gelditzeko eskatuz orain dela bi aste aurkeztu zuen errekurtsoa onartu ondoren, kautelazko neurri berezi hau hartzea erabaki du epaitegiak. Aurkeztu zitzaizkion arrazoiak aztertu eta gero, epaitegiak "arrazoizko zantzuak" aurkitu ditu, neurriak hartuko ez balira, FEKOORek abiatutako ekintza judizialen "xede legitimoa galdu egingo" litzatekeelako; izan ere, "ezin izango ziren igogailu bertikalak bertan jarri, mugikortasun urria, gurpilaikiak edota haur-kotxeak erabiltzen duten pertsonen zerbitzu berezia emateko". Momentuz, obrak gelditzeko agindua indarrean jarraituko du, harik eta epaileak epaia eman arte.

Joan den abuztuan hasi ziren eskaile-ra mekanikoa jartzen, eta kautelazko neurriak obrak guztiz etetea agintzen du. Dena den, ez da erabaki irmoa, Sestaoko Udalak apelazio-errekurtsoa

aurkezteko aukera izango baitu, hamabost eguneko epea amaitu baino lehen.



Eskailera aldapa handia duen gunean kokatu nahi da, baina horrekin ez dira konponduko hiritar guztien mugikortasun-arazoak, zenbait konponbide tekniko erabilerrazei ez bazaie bide ematen behintzat. Egindako txosten independenteek azaltzen dute igogailuak jartzeak bete egingo lukeela irigarritasun unibertsalaren printzipioa. Sestaoko Udalak onartu eta eraikuntza fasean dagoen proposamen teknikoak eskailera mekaniko zatiak hainbat tokitan jartzea aurreikusten du, baina mugikortasun urriko pertsonen erabiltzeko egokitu gabe (eskuzko eragingailua duen edo funtzionamendu elektrikoko gurpilaikia erabiltzen duten pertsonak, bere kabuz leku batetik bestera orekaz ibiltzeko gai ez diren pertsonak, haurkotxeak daramatzaten pertsonak...).

FEKOORek behar beste laguntza, arreta eta baliabide eskaini die irigarritasun unibertsalari buruzko arazoetan aholkua eskatu duten udalerriei, beti egin du, eta hala eskaini zion Sestaoko



Udalari ere, bi alderdiena baita bizi-lagun guztien onura ekarriko duten akordioak lortzeko gogoia. Lankidetzaz horren adibide argia eta zuzena da Euskadiko udalerrri askotan FEKOOREK 2008an garatutako Etxebizitzaren Irisgarritasuna Sustatzeko araudia onetsi dela. Araudiak helburu argia du: hiri eta herri askotan oraindik orain dauden oztopo arkitektonikoak kentzea, eta irisgarritasuna lehenetsi eta hobestea. Horretarako hainbat lan egin behar dira, igogailuak eta arrapalak jartzea, besteak beste, eta irtenbide egokiak izango dira, alde batetik,

desjabetzearen bidea garatzea, eta bestetik, jabari publikoko eremuak hartu beharra, baina betiere, jakina, hartarako nahikoa arrazoi baldin badago, eta beste irtenbide tekniko guztiak erabat ezinezkoak badira.

Gero eta gehiago dira Euskadin, alderdi politiko batekoak edo beste-koak izan, FEKOOREK proposaturiko ordenantzak bultzatzen duen irisgarritasunaren aldeko udal-hitzarmena sinatu duten udalak; tartean Bilbo, Lemoa, Getxo eta Santurtzi Bizkaian, eta Donostia, Zarautz, Errenteria, Elgoibar eta Irun Gipuzkoan.

## **BILBOKO UDALAK, BERE BERDINTASUN SAILAREN ESKUTIK, ETA FEKOOREK GUTXITASUN FISIKOA DUTEN EMAKUMEEN AURKAKO GENERO-INDARKERIAREN ARAZOAN ARRETA HOBETZEKO AKORDIOA ZINPETU DUTE**

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzaz eta Hiritarren Sailak eta Gutxitasun Fisikoa edota Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren helburua bi erakunde horien arteko koordinazioa bultzatzea izango da, eta genero-indarkeriari aurre egiteko baliabideen arloan, bere eginkizun nagusia du udaleko gizarte zerbitzuetan sartzeko eta parte hartzeko Bilboko emakume guztien aukera berdintasuna bermatzea.

Nekane Alonsok, Bilboko Udalaren **Berdintasun gaietarako** zinegotziak, eta Juan Carlos Solak, FEKOOREko zuzendariak, akordioaren sinaduraren bitartez Genero-Indarkeriaren aurkako Udala Programa egokitu eta tratatu txarren biktima diren gutxitasunen bat duten emakumeen aldeko sentsibilizazio, prebentzio eta arreta zuzenerako ekimenak elkarrekin sustatzeko konpromisoa lotu zuten.

FEKOOREko zuzendariak, akordioa aurkezteko prentsaurrekoa eskaini eta Bilboko Udala zoriondu nahi izan

zuen, “bereziki Berdintasun gaietarako Saila, erabateko arreta eta babesa ematen dielako emakume guztiei, salbuespenik gabe, gutxitasunen bat duten pertsonak ere emakumeen arreterako udal plan, programa, proiektu eta zerbitzuetan kontuan hartuz”. Akordioaren onuradunak “gutxitasunen bat eduki eta diskriminazio anitzaren ondorioak jasaten dituzten gure kideak izango baitira, gutxitasun bat eduki eta emakume izate hutsak sartzeko arriskuan dauden taldeen barruan”, adierazi zuen.

Datu ofizialek azaltzen dutenez, gutxitasuna duten emakumeen %80k indarkeria zuzena pairatu du bere bizitzaren uneren batean, eta beste emakumeek baino lau aldiz arrisku handiagoa du sexu indarkeria jasateko.

Hainbat herritan egindako azterlanen arabera, gutxitasuna duten emakumeei eragiten dien genero indarkeria beste emakumeei eragiten diena baino bi eta bost aldiz handiagoa da.

Indarkeriaz jokatzten dutenak biktimarekin nolabaiteko harreman afektiboa izan duten edota izan zuten gizonetzkoak izan ohi dira, baina ez dira haietara mugatzen, erasoak biktimaren ingurune sozialean edo familiarrean ere gertatzen direlako. Gizon eta emakumeen arteko boteresorekak eta mendekotasun-egoerak dira indarkeria eta abusuak sorrarazi eta iraunarazten dituzten arrazoi nagusiak.

“Ikusezintasun” soziala da gutxitasuna duten emakumeen kolektiboak jasaten duen arazorik handienetako bat. Erabakitzekeo duten eskubidea kentzea, haiek gutxiestea, irrigarri uztea, behar bezalako arreta ez ematea, eta bere baimenik gabe esterilizatzea edo haurdunaldia etetea, besteak beste, gutxitasuna duten emakumeek jasaten dituzten indarkeri eta tratu txarren adibide gutxi batzuk baino ez dira.



Hala ere, emakume horiek dituzten baliabideak oso murrizak dira, erakundeen aldetik jasotzen duten laguntza ere ez da behar bezain egokia eta ideologia tradizionalari aitortzen zaion nagusitasuna handia da oraindik gizaratearen baitan. Horregatik guztierengatik da hain zaila indarkeria eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat egoera horiek salatzea.

Ondorioz, hitzarmena sinatzea eta abian jartzea, “administrazioak dakarren adibide eredugarri bat da, eta, ezbairik gabe, egoera zaurgarri honekin amaitzeko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko aurrerapauso oso garrantzitsua da”, adierazi zuen Solak.

## Ikuspegi berri bat

Bilboko Udalak eta FEKOORek adostu berri duten hitzarmenaren bitartez, egun indarrean dagoen Genero Indarkeriaren aurkako Udal Programak hedatzeko dituen mugak gainditu eta egokitu ahalko dira. Horretarako, esparru horretara behartuta dauden udal plan, programa, proiektu eta zerbitzuetan aniztasun funtzionalaren ikuspegia sartuko da.

Akordioak esperientziak elkarrekin trukatzeko bultzatu nahi du, eta profesionalen aholkularitza- eta trebakuntza-lanen bitartez gauzatu da, honako bi helburu nagusi hauekin: emakumeen aldeko udal plan, programa, proiektu eta zerbitzuetan gutxitasunaren eta aniztasun funtzionalaren ikuspegia sartu; gutxitasuna duten pertsonen kolektiboari FEKOORek eskaintzen dien zerbitzuetan generoren ikuspegia sartu; gutxitasuna duten pertsonen pairatu baina salatu ez dituzten indarkeri egoerak ahal bezain azkar hautemateko moduak hobetu; eta FEKOOReko erabiltzaile diren pertsonen sentsibilizazioa sustatu, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako eta genero indarkeriaren prebentziorako esparruetan.

Horrez gain, erabiltzaileek beraiek eskatzen badute, jarduera-protokolo bat prestatuko da, FEKOORen laguntza jasotzen duten emakumeak Genero-biktimei Laguntzeko Udal Zerbitzura bertara bidali ahal izateko eta Genero-indarkeriaren biktimei Laguntzeko Udal Zerbitzuaren laguntza jasotzen duten emakumeak FEKOORera bertara eraman ahal izateko.

## Sustapen-ekintzak

2010-2011 Ekintza Planak gauzatzeko du Bilboko Udalak eta FEKOORek adostutako lankidetzak-hitzarmena, eta, plan horren baitan, neurri batzuk hartuko dira gutxitasuna duten emakumeek jasaten duten genero-indarkeria



prebenitu, haiei informazioa eman eta egungo arreta hobetzeko:

- Webgunearen bitartez, edukiak ezagutzeko aukera sustatuko da.
- Aukera-berdintasuna lortzeko neurriak hartuko dira eta hizkuntza ez sexistaren erabilera sustatuko da.
- Emakumeen etxebizitza-sarbidea errazteko eta Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Sailari dagozkion udal-zerbitzuetan sartzeko neurriak bideratuko dira, udal-baliabideak eta zerbitzuak gutxitasuna duten emakumeen beharretara egokituz eta Administrazio eskudun guztiei antzeko neurriak har ditzaten eskatuz.

Amaitzeko, formazioaren eta sentsibilizazioaren eremuan, honako tailer hauek antolatuko dira:

- *“Gutxitasunari eta genero-inderkeriari buruzko tailerra”*, FEKOOREko kide izan eta gutxitasuna duten

emakumeei zuzendua (7 talde). Azaroa 2010-otsaila 2011.

- *“Genero-inderkeriari eta erasoak antzemateko estrategiei buruzko sentsibilizazio-tailerra”*, FEKOOREko profesionali zuzendua (2 talde). 2010eko abenduaren 13 eta 14.
- *“Gutxitasun fisiko edota organikoari eta erasoak antzemateko estrategiei buruzko sentsibilizazio-tailerra”*, Genero-Indarkeriaren aurkako Udal Programan partaide diren udal langileei eta osasun-arloko langileei zuzendua (2 talde). Urtarrila 2011.
- *“Erantzukizunkidetzari buruzko tailerra”*, Zainduz programan partaide diren pertsoneri zuzendua (1-2 talde). Martxo 2011.
- *“Sexualitateari eta gutxitasunari buruzko tailerra”*, Respiros taldeko boluntarioei eta Sustatuz programako laguntzaile pertsonalei zuzendua (talde 1). Urtarrila 2011.

## 100ETIK GORA DIRA FEKOOREN “ZAINDUZ” PROGRAMAK TREBATZEN DITUEN PROFESIONALAK EZ DIREN ZAINTZAILEAK

Zure burua eta besteena nola zaindu. Hori da FEKOOREk *“Zainduz”* programaren barruan antolatzen dituen ikastaroen eta tailerren helburu nagusia, gutxitasuna duten edota mendeakoak diren senideak zaintzen dituzten pertsonen trebakuntzarako prestatuak diren aldetik.

Berrogeita hamar bat pertsona inguru urriaren erdialdetik hasi ziren gutxitasuna duten edota mendeakoak diren senideak zaintzeko prozesu konplexuari buruzko formazioa eta laguntza jasotzen.

Urriko lehen astean *“Zaintzailea zainduz”* izeneko mintegia antolatu zen. Helburua hurrengo hau zen: mendeakoak diren senideak zaintzen dituzten pertsoneri laguntza, ezagutza eta tresnak eskuratzea, ahalik eta arreta hobereena eskaini diezaieten, zeregin horrek



beren osasunean izan dezakeen eragin kaltegarria murriztuz.

Mintegi horietan honako gai hauek lantzen dira: transferentziak eta mobilizazioak, higiena eta ergonomia, higiene-arauak eta osasunerako arauak (arropa, elikagaiak, sendagaiak...), etxea nola egokitu, etxeko erorkei aurre hartzea, komunikatzen eta

moldatzen jakitea egoera larrien aurrean, eta erlaxazioa.

Familia-eremuan mendekotasuna duten pertsonen zaintza ardura morala da, baina osagai emozionalak estu hartzen ditu. Borondate onak, maitasunak eta neke pertsonalak muga bat dute.

“Gizarteak oraindik ere garrantzi gutxikotzat jotzen du etxeko lanak egitea. Zeregin hori behar bezala onartze-ko arreta eskasak eta gizartearentzat ikusezina izaten jarraitzeak dakarten ondorioa arriskuan daudenen arazoa aintzat ez hartzea da, eta orduan arretaneurriak ez dira hartzen edo berandu iristen dira”, azpimarratzen du Ainhoa Astarloak, FEKOOReko psikologo eta programaren arduradunak.

Zaintzaile gehienak emakumezkoak dira, gaixoaren ama, alabak edo emaztea izaten dira, eta zaintzen ari diren pertsonarekin bizi ohi dira. Mendekotasuna duen pertsona bat zaintzeak eragina izan dezake zaintzailearen eta bere eremu familiarren eta sozialaren eguneroko eginkizunetan. Tentsio emozionala eta osasun-arazoak eragiten ditu (estresa, depresioa, loezina, muskuluen ahulezia...), bete

behar diren eskaerak handiegiak eta haiei erantzuna emateko baliabideak oso eskasak direlako.

Bizkaian 7.000tik gora dira Mendekotasun Legeak Familia Inguruneke Zaintzarako arautzen duen diru-laguntza jasotzen duten pertsonak. Oso zeregin zaila betetzen dute, zaintzailearen behar bezalako trebakuntza-prestakuntzarik gabe, bakar-bakarrik eta laguntza eskasekin edota laguntzarik gabe.

Trebakuntza-prestakuntzarako ikastaro hauekin “pertsona horiei laguntza eman nahi diegu, haiekin egon, mendekotasuna duen pertsona bat zaintze-prozesu konplexu horretan, pertsona hori zaindu beharrak zaintzaileengan eragiten duen kaltea ahalik eta txikiena izan dadin”, agindu du Astarloak.

2009an martxan jarri zen ekimen horri esker, 20 baino gehiago dira antolatu diren tailerrak, guzti-guztiak lan-alor anitzeko pertsonen osatutako taldeen ardurapean, eta haietan ehunetik gora pertsona dira parte hartu dutenak, gutxitasunen bat duen edo mendekotasun egoeran dagoen sendiari arreta profesionalagoa eta bereziagoa eskaintzeko.

## **GUTXITASUNA DUTEN 36 PERTSONEK ITSAS BIDALDIAZ GOZATZEKO AUKERA IZAN DUTE FEKOOR 2010 OPORRAK PROGRAMARI ESKER**

FEKOORek beste urrats bat eman du aisialdi barneratzailea eskaintzeko ahaleginak areagotzeko. Horretarako, oporraldia atzerrian egiteko urteroko gure eskaintzen barruan, kruzeroa antolatu dugu Mediterraneoan zehar. Proposamen berritzaile dugu hau, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, gutxitasuna duten 36 pertsonen eta beren laguntzaileek osatu duten talde batek, urriaren 17tik 24ra bitartean, 8 egun zoragarri ospatu ahal izan ditu kruzero batean.

Taldea Bilbotik abiatu zen Bartzelonako porturaino, autobus egokitu batean. Han ontziratu ondoren, kruzeroa hasi eta mediterraneoko kostaldeko hiri aipagarrienak bisitatu

dituzte, hala nola, Napoli, Erroma, Florentzia, Monako, Montecarlo, Niza, Marseilla edo Proventzako Aix. Talde bisita egokituak antolatu dira Erroma, Florentzia, Napoli, Monako, Niza edo Marseilla bezalako hiri ezagunetan eta, taldeak, beti ere, programa osoan zehar bidaia-agentziaren laguntza eta zerbitzu zehatzak jaso ditu.



# FEKOOREK BIZIKLETA EGOKITUEN IRTEERAK ANTOLATU DITU, KIROLA SUSTATZEKO GUTXITASUNA DUTEN EMAKUMEEN ARTEAN

Gutxitasun fisikoa duten emakume tropel handia ibili zen joan den urriaren erdialdean Abandoibarra eta Galdameseko bidegorriak bizikleta egokituen gainean zeharkatzen, kolektibo horren artean kirola sustatzeko asmoz, aisialdi modu bat gehiago bezala ikusteko eta jarduera fisikoak osasunerako duen balioa bizitzeko.

**FEKOOREko Berdintasunaren Aldeko Emakumeen Elkarteak** antolatu ohi duen ekimena da, Emakumeen Ahalduntze Gaitasunaren Garapenerako Ikastaroak eta Tailerren zikloaren barruan. Gaiari buruzko mintegi batek eman zion hasiera zikloari urriaren 15ean, eta **bizikleta egokituen bi irteera antolatu ziren larunbat 16an Galdames-eko bide berdetik ibiltzeko eta igandean Abandoibarrako bidegorritik.**

**Kirol egokituari buruzko mintegiak** interesa duten pertsoneri bizikletan ibiltzeko eta belaontzian nabigatzeko jardueri buruzko oharra eta aholkua emateko **balio izan zuen.**

“Ekimen hori martxan jarri da gutxitasun fisikoa eta organikoa duten emakumeen artean kirola egiten dutenen portzentajea ikertu eta oso baxua dela ikusi denean”, adierazi du FEKOOREko Teknikariak.

Kirolak duen eginkizuna oso garrantzitsua da bizi-kalitatea lortzeko, osasun egoera hobetu egiten du eta gorputzaren alderdi fisikoa eta emozionala sustatzeko onuragarria ere bada, ez bairik gabe.

Programa horren bitartez, gutxitasuna duten emakumeen kirol praktika sustatu nahi da. Horretarako, auzoetan, kirol-instalazioetan, eskolan eta unibertsitatean kirolaz parekotasunean gozatzeko ekimenak garatu behar dira.

**Gutxitasun dute emakumeen %25ek bakarrik praktikatzen du kirolen bat.** FEKOOREk bere Kirol Elkartearen bitartez, urtero kudeatzen dituen



kirol-modalitateen (eskia, tenisa, mahai-tenisa, slaloma, Boccia, atletismoa eta txirrindularitza) federazio-lizentzia guztien %75 gizonak ordezkatzeko dute.

Datu horietatik ondorioztatu dezakegu gutxitasun duten gizonen aurrean gutxitasuna duten emakumeek duten desabantaila, baita gainerako emakumeen eta gizonezkoen aurrean ere, aisialdirako, kulturarako edo kirolerako eremuetan.

Oztopo horiei guztiei honako hauek ere gehitu behar zaizkie: gizartean mantentzen diren aurreiritzi kulturalak, gutxitasuna duten emakumeen erosteko ahalmena baxuagoa gainerako emakumeekin eta gutxitasuna duten gizonezkoekin alderatuta, mugitzeko zailtasuna eta luzaroan ibiltzeko autonomia gutxi izatea, eta familien barruan jokatzeko rola zaintzaile gisa edo gainbabestuak daudenean, besteek beste. “Baldintza horiek guztiak lantzeko eta ezabatzeko helburuz sustatu behar dira haiek ere kirol-mundura ekartzeko ekimenak, gainerako herritarrekiko aukera-berdintasunean”, esan du FEKOOREko Teknikariak.

## Bizikleta-irteerak

Parte-hartzaileek 10 Km inguru egin zituzten. Horretarako, gutxitasunaren arloko aisialdian urte askotako esperientziak laguntza eskaintzen dibulzian langile espezializatuen aholkuak jaso zituzten. Irteerak bizikleta egokituen gainean egin ziren.

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDAL GEHIAGOK BAT EGIN DUTE FEKOOREK IRISGARRITASUNARI BURUZ PROPOSATUTAKO ORDENANTZAREKIN

Getxo eta Santurtzi, Bizkaian, etxebizitzaren irisgarritasunari buruzko ordenantza onartu berri duten azken udalen zerrendan sartu dira. Ordenantzak jabetza pribatua desjabetzeko aukera ematen du, eta etxejabeen elkarteetan eraikuntzetako irisgarritasuna sustatzea du helburu. Egun indarrean dagoen Jabetza Horizontaleko Legean aldaketak egitea aztertzen ari dira, eta oso interesgarri litzateke aukera hori ere aldaketa horien artean sartzea.

Etxebizitzetako Irisgarritasuna Sustatzeko toki-ordenantza bat proposatu zuen FEKOOREk 2008an. Araudiak helburu argia du: hiri eta herri askotan oraindik orain dauden oztopo arkitektonikoak kentzea, eta irisgarritasuna lehenetsi eta hobestea. Horretarako hainbat lan egin beharko dira, igogailuak eta arrapalak jartzea, besteak beste, eta irtenbide egokiak izango dira, alde batetik, desjabetzearen bidea garatzea, eta bestetik, jabari publikoko eremuak hartu beharra, baina, betiere, jakina, hartarako nahikoa arrazoi baldin badago, eta beste irtenbide tekniko guztiak erabat ezinezkoak badira, Euskadiko Lurzoruaren Legeari jarraiki.



Gero eta gehiago dira Euskadin, alderdi politiko batekoak edo beste-koak izan, FEKOOREk proposaturiko ordenantzak bultzatzen duen irisgarritasunaren aldeko udal-hitzarmena sinatu duten udalak; tartean Bilbo, Leinoa, Getxo eta Santurtzi Bizkaian, eta Donostia, Zarautz, Errenteria, Elgoibar eta Irun Gipuzkoan.

Zentzu horretan, Auzitegi Gorenak ere jurisprudentzia sortu zuen 2008an,

bi bizilagun-elkarteetan izan ziren bi auziei buruz erabaki zuenean. Horrela, jabetza pribatuko eremuak modu iraunkor batez hartu behar diren alde eman zuen irizpena Auzitegi Gorenak, zortasun-erregimen kontzeptupean.

Bizilagun-elkarrekin igogailuak zein arrapalak jarri nahi izaten dituztenean, eskailera zuloaren edota patioaren neurriak oinarritzko ezaugarrietara egokitzen ez direla da arazo nagusia. Konponbidea lehenbailehen ematea eskatzen duen arazoa da hori, izan ere egun parke publikoa osatzen duten etxebizitzaren %70k ez du igogailurik eta daukatenen %80k eskailera-mailak dauzka igogailura iristeko.

Etxebizitzetako Irisgarritasuna Sustatzeko toki-ordenantzari esker, orain arte erabat ezinezkoak ziren birgaitze lan asko egin ahal izango dira: amaiezinak diruditen auzi judizialak argituko dira, eta higimena urrituta daukaten pertsonak ez dute etxebizitzaz aldatu behar izango eta bakoitzak bere inguruan bizitzaren jarraitu ahal izango du. Eusko Jaurlaritzak onetsi duen Lurzoruen Legeari esker, Udalek aurrerantzean desjabetzeko baimena izango dute, bizilagun-elkarrekin akordio baten bidez edo epai judizialaren bitartez. Bizilagun-elkarteetan desadostasunak sor daitezkeenean, alderdiei auzi-bideetara jotzeko asmoa kentzea izango da baliabide horren helburua, beti ere irisgarritasunaren arazoa adiskidetasunaren bitartek konpontzeko ahaleginarekin.

Desjabetzea administrazioari dago- kio, etxeetako bizilagun-elkarrekin

edo partikular batek hala eskatzen dutenean, baita gutxiengoa osatzen badute ere 15/95 Legearen babesean. Hori guztia komunitatearen beraren onerako izango da, nahiz eta erki-degoak berak eman beharko dion desjabetutako pertsonari dagokion kalte-ordaina eta igogailua ipintzeko lanak ordaindu beharko dituen.

Fekoorek beste autonomia-erkidego batzuetako udalerrri jakin batzuen deia ere jaso du, arauaren arabera konponbide horri buruz galdetzeko. Orrialde hauen bitartez, eta Euskadin Cocemferen ordezkari garen aldetik, irisgarritasun unibertsalaren aldeko udal-hitzarmen hori gehiago hedatzeko gure laguntza eskaini nahi diegu kide diren erakunde guztiei. Garrantzi handikoa litzateke "zortasuna" eta jabetzaren hartu behar iraunkorra bezalako kontzeptuak, Auzitegi Gorenak onetsia eta FEKOOREk proposatu bezala, Jabego Horizontalari

buruzko Legearen aldaketa-proiektuan aintzat hartzea.

Irisgarritasun-lan asko eta asko gauzatzeko ezinbesteko urratsa da hori, izan ere jabego pribatuaren nahitaezko desjabetzea eskatzen baitute (eskailera-zuloak, garaje eta etxabetako sabaiak, saltokiak...).

Are gehiago, Espainiako erkidego guztientzako irisgarritasuna 2019 urterako lortu nahi bada.



## BERTAN BEHERA GELDITU DA NAZIOARTEKO MARATOI-ERDI EGOKITUA LAGUNTZEN FALTAGATIK

### Bilboko Semi-marathon International Adapté

Aurten atletismo-aulkiak ez dira Abandoibarrako zirkuituan ibiliko. Kirol egokitua ere krisiaren biktima da. Gure Hirian atleta paralinpikoak, zaleak eta Bilboko hiritar ugari biltzen dituen nazioarteko sona handiko kirol-ikuskitun hau bertan behera uztera behartuta gaude, diru-laguntzen falta dela-eta.

Bilboko Nazioarteko Maratoi-Erdi Egokitua Antolatzen duen Batzordeak jakinarazi nahi die aurreko edizioetan parte hartu izan duten kirolariei, babesleei, zaleei, boluntarioei, eta, oro har, kirol egokitua sustatzeko gure ahaleginean laguntzen gaituen jende guztiari, **azkenean Urriaren Igandeak 3rako aurreikusita zegoen proba ezin antolatuko dugula, babesle eta diru-laguntza faltagatik.**

FEKOOREko Lantalde Teknikoa azken unera arte lanean aritu da, Bizkaian kirol egokituaren arloan benetako

mugarri den proba hau antolatzea lortzeko. Zoritxarrez, eta diru-laguntzen faltaren ondorioz, diziplina honetan Estatuko kirolari-kopuru handiena bildu eta Nazioarteko sona handia zuen VII. edizioa izango zena bertan behera uztera behartuta gaude.

Bi arrazoi horiek jada klasiko bihurtu zuten proba hori Bilboko kirol-egutegiaren barruan, eta asko ziren parte hartzeko zain zeuden pertsonak.





## DONOSTIA, EUROPAKO HIRI IRISGARRIA SARIA LORTZEKO HAUTAGAI

Donostia hautagaia da "Access City Award" saria lortzeko lehengo fasera iristeko. Hiri irisgarri bat saritzeko, Europako Batzordeak ematen duen sari nagusia da hori.

Donostiarekin batera, beste hamabi dira probintzia hautagaiak, eta finale-rako CERMik aukeratuko dituen hiriak hiru izango dira.

"Access City Award" saria Europako Batzordeak ematen du eta, horren bidez, hiriko irisgarritasuna hobetzeko eta ahalmen-urritasuna duten pertsonak guztiz gizarteratzeko baliabideak sustatzen dituzten hiriak saritzen ditu.

Saria lortzeko hautagai diren hiriek aurkeztu dituzten proiektuetan, lau dira jorratu beharreko ardatzak: in-

gurumena eta espazio publikoa, informazioa eta komunikazioa, garraioa eta azpiegiturak, eta zerbitzu publikoak eta instalazioak.



Sari-banaketa Bruselan egingo dute, abenduaren 2an eta 3an, Ahalmen Urriko Pertsonen Nazioarteko Eguna ospatzeko Biltzarra dela-eta.

## GIPUZKOAKO GIZARTE-ZERBITZUEN SISTEMA BERRIAREN AURKEZPENA

Maite Etxaniz Gizarte Politikako diputatu andreak Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Etorkizunerako Eredua aurkeztu zien gizarte-erakundeei. Eredua indarrean jarri eta martxan izango da datozen hilabeteetan.

Sortu berri den ereduak lau emaitza nagusi lortu nahi ditu, besteak beste:

- Gizarte-kohesio handiagoa.
- Eraginkortasun handiagoa politika publikoetan.
- Iraunkortasun ekonomikoa.

- Giza elkarreragina bermatzea.

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen etorkizunerako eredu hori lortzeko, ezinbestekoa izan da hausnarketa egitea eredu definitzeko. Hausnarketa-prozesuaren barruan gizarte-eragile guztien parte-hartzea indartu da, gizarte-zerbitzuak ematen dituzten erakundeena barne.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkeztu eta onartu ondoren, martxan jarri eta amaituta egongo da 2011ko maiatzeko.



# TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINeko UDAL ZERGA ESKUBIDEAK MURRIZTEN DITUEN ALDAKETA

Batzar Nagusiek abenduaren 23ko 4/2009 Foru Agindua onartu zuten 2010. urterako. Arauak aldaketak sartzen ditu zenbait zergatan.

Bertan jasotako berrikuntzen barruan, Foru Aginduaren 8. artikuluan hain zuzen ere, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gaineko Udal Zerga ordaintzeari buruzko aldaketak sartzen dira. Orain arte, ahalmen-urritasuna duten pertsonak ez zuten zerga hori ordaindu behar, ibilgailua ezindua izenean matrikulatutakoa zenean (uztailaren 5eko 14/1989 Foru Agindua).

Hala ere, aldaketa berri horien arabera, guri dagozkigun eskubide asko galduko ditugu. Batetik, zergaren ordaintzatik salbuetsiko dira 14 zerga-zaldi baino gutxiago eduki eta elbarrien izenean dauden eta haiek bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hori egoerak dirauen bitartean bakarrik aplikatuko da, bai elbarriek gidatutako ibilgailuen kasuan bai elbarriak eramateko ibilgailuen kasuan.

Bestalde, arau horretan agindutakoari jarraituz, ahalmen urriko pertsonak izango dira:

- a) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako elbarritasuna aitortuta duen pertsona eta mugikortasun murriztuko gabezia-egoeran badago. Horrelakotzat hartuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (elbarritasun-maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena) III. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo

H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.

- b) Ehuneko 65eko elbarritasuna edo handiagoa duten pertsonak.



Aipatutako Foru Aginduak eskubideak murriztea dakar bi ikuspuntutatik aztertuta:

- Batetik, Zergaren ordaintetarako salbuespenari dagokionez, ahalmen-urritasuna duten pertsonak izango dira: ehuneko 65eko ahalmen-urritasuna edo hortik gorakoa duten pertsonak, eta ehuneko 65etik beherako ahalmen-urritasuna aitortuta duten pertsonak eta mugikortasun murriztuko gabezia-egoeran badaude. Orain arte, ordea, nahikoa zen ehuneko 33ko ahalmen-urritasuna edo hortik gorakoa aitortzea.
- Bestalde, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gaineko Udal Zergaren ordaintetatik salbuetsita geratzeko, lehen, ez ziren kontuan hartzen ibilgailuaren zerga-zaldiak.

Aldaketa horien ondoren, ELKARTUk eskatu zuen ahalmen-urritasuna duten pertsona guztiak Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gaineko Udal Zerga

ordaintzetik salbuetsita gera daitezela Gipuzkoako Foru Aldundiko Gutxitasuna duten Pertsonen Kontseiluan, Arartekoan eta partaide garen udal sail guztietan, bereziki aldarrikatuz ehuneko 33ko ahalmen-urritasuna edo hortik gorakoa aitortu zaien pertsonen gaineko arreta, **ahalmen-urritasuna duten pertsonen aukeraberdintasunerako, bereizkeriarik ezera**ko eta nonahi ibiltzeko aukere-

## AHALMEN URRITASUNAREN TXARTELA

2010. urteko lehen hiruhilekoaren amaieran Foru Aldundiak sortutako txartela da, ahalmen-urritasuna duten pertsonentzat, Foru Agindu bidez jakinarazitakoaren arabera.

Horren bidez, txartela duten pertsonak ahalmen-urritasuna dutela egiaztatu ahal izango dute erakunde, instituzio edota entitateen aurrean, besteak beste. Txartelaren titularrak ahalmen-urritasuna duten pertsonen zuzendutako zerbitzuak eta onurak jasotzeko eskubidea duela eskatu ahal du.


Txartelaren onuradun izan daitezke Gipuzkoako Lurralde Historikoan egoitza izan eta %33ko ahalmen-urritasun maila edo hortik gorakoa aitortu dutenak; agiria norberak erabiltzekoa eta besterenezina izango da.

Ahalmen-urritasunaren txartela NAN agiriarekin batera aurkeztu beharko da, eta erakundeek edota entitateek eska dezakete ahalmen-urritasun maila aitortzen duen paperezko ziurtagiria edo horren kopia ere, aurkezteko unean beharrezkotzat jotzen dutenean.

Titularrari zuzenean itzuliko zaio txartela, %33ko edo hortik gorako ahalmen-urritasuna aitortzen duen ziurtagiria egin eta berehala. Ezgaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiria duzuenen kasuetarako, Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Sailean eska

**tarako abenduaren 2ko 51/2003 Legean ezarritakoaren arabera.**

Zerga-zaldi kopuruaren mugari dagokionez, egin diren aldaketen artean baztertu egin beharko litzateke azkenera arte jaso ez den murrizketa hori, ibilgailuei egin beharreko egokitzapen-lanek indar handiagoa eskatzen baitute kasu askotan.



dezakezue txartela, **943 112 611 telefono zenbakira** deituta.

Ahalmen-urritasunaren maila hori egokitzeko orduan, oinarriko %33ko horretatik beherako aldaketa eman dela ziurtatuko balitz, pertsona onuradunak txartela itzuli beharko luke, hura itzultzeko eskatu eta 10 eguneko epearen barruan; itzuli ezean, ofizioz ezetzatu egingo zaio.

Baina alderantziz gertatzen bada, hau da, epaitegiaren zein administrazioaren erabakiz aitortutako ahalmen-urritasunaren maila %33tik gorakoa dela ziurtatzen bada, zuzenean jasoko du ahalmen-urritasunaren txartela; jaso ezean, 10 eguneko epearen barruan eska dezake pertsona onuradunak.

Ahalmen-urritasunaren txartela indarrean egongo da ahalmen-urritasun maila aitortzen duen ziurtagirian zehaztutako denboraz; epe hori mugagabea edo aldi baterakoa izan daiteke, baldin eta ahalmen-urritasun mailaren balorazioak kontrakorik esaten ez badu.

## 25 URTE EKINEZ



25 urte igaro dira ELKARTU–Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea (orduan “Koordinadora” soilik esaten zitzaion) jarduerak antolatzen eta egiten hasi zela bere lokal propio eta independentean. Ekintza horiek hirurogei eta hamarreko azken urteetakoak badira ere, “Koordinadora” ez zen legalki eratu 1983. urtera arte. Beste bi urte itxaron behar izan ziren, ordea, egoitza soziala eta lan-zentroa izango zen espazio bat aurkitzeko eta ekipatzeko. Horretarako, zenbait erakunderen laguntza izan genuen, batez ere Gipuzkoako Foru Aldundia-rena eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzarena. Lokala Sahatsaren plazan zegoen, 1. zenbakian, a.c., Donostian. Irekiera 1983ko urrian izan zen, eta baliabide material eta pertsonalak oso oinarrizkoak eta urriak ziren. Horrela bada, jarduera- eta zerbitzu-programa zabal bati ekin genion, gutxitasun fisikoa duten pertsonen eta haien familien zerbitzura eta, oro har, gizartearen zerbitzura. 2004an, ikusirik espazioa handitu beharra zegoela zerbitzu hobea eman eta jarduerak hobeto garatu ahal izateko, instalazio horiek lokal berrira aldatu ziren, Ondarreta kaleko 7. zk.ra (behe-solairua), alegia. Lokal berria Gipuzkoako Foru Aldundiak laga zigun, eta ELKARTUK, gaur egun, bertan egiten du bere jarduna.

Gertakari horri 25 urtetako ikuspegiak begiratuta, gogoeta batzuk egin ditzakegu bai ELKARTUri berari buruz, bai herritarrengan eta gizartean duen eraginari buruz.

Ezbairik gabe, fase garrantzitsu bat izan zen Gipuzkoako gutxitasun fisikoa duten pertsonen koordinazio-beharra eta elkarte-mugimendua sendotzeko eta bultzatzeko orduan. Erregimen frankista gainditzeak eta demokraziaranzko trantsizio politiko bat abiatzeak askatasun-haizeak ekarri zituen asoziazionismoarentzat, bai eta gutxitasun-arazoak dituzten herritarrentzat ere. Horren ondorioz, elkarte asko sortu ziren, beren helburu eta proiektu propioak ziztuztenak; edonola ere, argi eta garbi zegoen, hasieratik, elkarte horien azken xedea ekintza sozial bakarra eta koordinatua bilatzea izango zela. Kolektiboak gizarte, familia eta pertsona mailan zituen arazoaren aurrean, ikusi zen ahaleginak benetan batzeko beharra zegoela, aldarrikapen publiko eraginkor bat egin ahal izateko bizi-tza sozialaren esparru guztietan. Pertsonen, familien eta komunitatearen jarrerak aldatzea ezinbestekoa da, bai eta hainbeste estereotipo negatibo eta marjintzaile gainditzea ere, eta errealitatearen sakoneko aldaketa sustatzea. Kolektiboaren barruan, ezinbestekoa zen ekintza bateratu bat ziurtatzea aldarrikapen-helburuak koordinatzeko eta erakunde soziale-tan interpelazio-, ordezkaritza- eta



partehartze-bide eraginkorrak ezartzeko, batez ere erakunde publikoetan (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, udalak...). Horrela jarduten zen bai gabeziak eta beharrak hauteman eta baloratzeko orduan, bai erakunde eta gainerako eragile sozialen aurrean ekintza serioak planteatzeko orduan, bai gizarteak ahaztutako kolektibo bat agerian jartzeko ahaleginei zegokienez ere. Hori izan da, hain zuzen, ELKARTUren xedea bideratu duen ekintza-lerroetako bat. Aldarrikapen- eta koordinazio-lan hori ELKARTUren barruan une bakoitzean egon diren elkarteekin egiteaz gain, gutxitasunarekin lotutako beste erakunde batzuekin ere oso harreman estua eduki dugu, nola lurralde mailako erakundeekin, hala estatuko eta erkidegokoekin. Zehazki, eta hasierahasieratik, aktiboki egon da Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailean eta estatuko antzeko beste erakunde batzuetan.

Lan- eta gizarte-zentroa zena harre-  
ra-, informazio- eta laguntza-leku ere bihurtu zen, batez ere aniztasun funtzionalak eragindako arazoak zituzten pertsonentzat. ELKARTUren jarduna bideratu duen beste helburuetako bat, dudarik gabe, hau izan da: baldintza egokiak exijitzea pertsonaren eskubideak eta betebeharrak eraginkortasunez garatzeko eta gizarteak bizitzaren esparru guztietan ezinbestean eman behar duen aldaketan aurrera egiteko. Osasuna, prebentzioa, hezkuntza, lana, etxebizitza, aisia eta denbora libre, irisgarritasuna, prestazio sozialak, neurri fiskalak, inklusio eta partehartze soziala...



Besteak beste, esparru horietara bideratu ditu ELKARTUK bere ahaleginak, gizarteko sektore honen eskaerei erantzuteko asmoz.



Azkenik, azpimarratu behar da ELKARTUK, bere egoitza sozialetik, zenbait zerbitzu eta jardura egin dituela integratzeko, normalizatzen eta partehartze soziala lortzeko prozesua errazteko eta bultzatzeko. Jardura horietako batzuk orokorrak izan dira, eta gizarte eta haren erakundeak mentalizatzen eta jarre-  
rak eta portaerak aldatzen egon dira bideratuak (informatzea, dokumentatzea, publizitate-kanpainak egitea, egoera diskriminatzaileak salatzea eta konponbideak eskatzea); beste batzuk, berriz, gutxitasuna duten pertsonen kolektiboarentzat berarentzat egin dira: beren eskubide eta betebeharrak buruz informatzeko eta erreklamazio-prozesuetan laguntzeko zerbitzua, laguntza tekniko, baliabide tekniko eta komunikazio-baliabide berriak ikasteko jarduerak, partehartze soziala lortzeko eta gizarteratzeko programak (Norbera Kalean Moldatzen Ikasteko Programa, Opor Programa)...

Zalantzarik gabe, beste alderdi asko ere azpimarratu beharko lirateke ELKARTUK azken 25 urte hauetan egin duen lanaren barruan. Urteurren hau, dudarik gabe, zoriontzekoa eta ospatzekoa da prozesu luze honetan parte hartu duten hainbat pertsona eta elkarerentzat. Ibilbideak itzalak eta argiak izango ditu, baina argi

dago ELKARTUren partehartze soziala laguntza handia izan dela kasu askotan, eta zerikusi handia izan duela gizarte inklusiboago baterantz eta integrazio sozialerantz gizarteak eman duen aldaketan. Bai, egia da, oraindik gure helburuak lortzetik eta oztopoak gainditzetik urrun gaude, eta horrenbestez, oraindik ez dugu lortu eragozpenik eta desoreka sozialik gabeko bizitza pertsonal eta komunita-

ria. Baldintza sozial egokiak bilatzen ditugu, posible izan dadin askatasunean bizitzea eta autonomia pertsonala izatea, aniztasun funtzionala errespetatzen duen gizarte inklusibo batean. Gutxitasuna duten pertsonen elkarte-mugimenduak eta, zehazki, ELKARTUK erronka berri eta berritzaileei aurre egin beharko die datozen urteetan, helburu hauek errealitate bihurtu daitezkeen.

## ELKARTUK ERAKUNDEETAN PARTE HARTZEN DU

**ELKARTUK**, Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioak, konponbideak lortzeko ekintza berritzaileen garapenaren alde lan egiten jarraitzen du hainbat forotan. Horrela, gogorazi eta aldarrikatu nahi dugu ahalmen urritasuna duten pertsonen eskubideak osotasunean bermatu eta sustatu behar direla, beti ere gizartearen guztizko irisgarritasunaren mesedetan.

*Gaur egun, honako hauetan parte hartzen du ELKARTUK:*

- COAMIFICOA (Espainiako Autonomia Erkidegoetako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Koordinakundearen eta Elkartearen Federazioa).
- Irisgarritasuna Sustatzeko Eusko Jaurlaritzako Euskal Kontseilua.
- Gutxitasuna duten Pertsonen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoako Kontseilua.

*Hainbat Kontseilutan ere parte hartzen du, udalerrri-mailan:*

- Donostiako Udalean (Gizarte Ekintzarako Kontseilua, Mugikortasunerako Kontseilua eta Gizarte Ongizaterako Kontseilua).
- Irungo Udalean (Gizarte Ongizaterako Kontseilua eta Hiri Antolamendurako Aholku Kontseilua).
- Tolosako Udalean (Hiri Antolamendurako Aholku Kontseilua).

*Parte hartzen du beste hainbat erakundetan ere:*

- Gipuzkoako RSC (gizarte-erantzukizun korporatiboa) Foroan, web-orrialde berri baten prestaketan parte hartzen ari gara.
- SARGI Gizarte Ekimeneko Erakundearen Plataforman, sortu zen unetik bertatik ari gara bertan parte hartzen. Egun, gizarte-mailan lanean ari diren Gipuzkoako irabazi-asmorik gabeko 20 taldek osatzen dute elkarteak.



# AHALMEN-URRITASUN FISIKOA ETA SENTSORIALA DUTEN PERTSONENTZAKO OPORRALDI-PROGRAMA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren laguntzarekin, ELKARTUK ahalmen-urritasun fisikoa eta sensoriala duten pertsonentzako Oporraldi Programa antolatu du. Programa horren barruan, helburu integratzailea lortzeko konpromisoa hartu dute, parte-hartzaileak gizarteratzeko ekimenak sustatuz batez ere.

Programaren lehenetasuna da ahalmen-urritasun fisikoa eta sensoriala duten pertsonen parte-hartzea sustatzea, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudelako. Horretarako, oporrak egiteko aukera eskaintzen zaie, haien beharretara egokitutako baldintzak eta bidaiak antolatuz.

Aurten, lekuak hauek eskaini zaizkie: Benidorm, Salou, Galizia, Salamanca eta Tenerife. 309 pertsonak hartu dute parte, haietatik 160 ahalmen-urritasun fisiko eta organikoa dutenak izan dira, mendekotasun-egoera larrian daudenak; hori dela eta, 149 pertsona aritu dira haien oinarrizko beharrak betetzen laguntzen.

Programa urriaren 30ean amaitu zen, eta ebaluazio positiboa egin diote, parte-hartzaile eta laguntzaile guztien iritziz.

